EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gipuzkoako Foru Aldundia

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ARTEKO ETA FORU ALDUNDIEN BERAIEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA INFORMAZIOA BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BITARTEZ TRUKATZEKO

# CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA, Y DE ÉSTAS ENTRE SÍ, PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN POR MEDIOS ELECTRÓNICOS

Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco · Arabako Foru Aldundia – Diputación Foral de Álava · BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia · Gipuzkoako Foru Aldundia

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ARTEKO ETA FORU ALDUNDIEN BERAIEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA INFORMAZIOA BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BITARTEZ TRUKATZEKO**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA, Y DE ÉSTAS ENTRE SÍ, PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN POR MEDIOS ELECTRÓNICOS**

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 6a

Vitoria-Gasteiz, 6 de noviembre de 2015

**HAUEK BILDU DIRA:**

**REUNIDOS:**

Josu Iñaki Ercoreca Gervasio jauna, Herri Administrazioa eta Justiziako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean (hemendik aurrera EAEko Administrazioa).

De una parte, Don Josu Iñaki Ercoreca Gervasio, en su calidad de Consejero de Administración Pública y Justicia, y en representación de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante Administración de la CAE).

Cristina González Calvar andrea, Arabako Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua, Foru Aldundiaren izenean.

De otra parte, Doña Cristina González Calvar, Diputada Foral de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de Administración Foral de Álava, en representación de dicha Diputación Foral.

Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, Bizkaiko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatua, Foru Aldundiaren izenean.

De otra parte, Doña Ibone Bengoetxea Otaolea, Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de Bizkaia, en representación de dicha Diputación Foral.

Imanol Lasa Zeberio jauna, Gipuzkoako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatua, Foru Aldundiaren izenean.

De otra parte, Don Imanol Lasa Zeberio, Diputado Foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad de Gipuzkoa, en representación de dicha Diputación Foral.

Alderdiek hitzarmena sinatzeko behar den gaitasun juridikoa onartu diote elkarri eta hori dela bide hauxe

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente Convenio y en su virtud

ADIERAZI DUTE:

I.- Bai EAEko Administrazioak, bai Foru Aldundiek administrazio-kudeaketa modernizatu, arrazionalizatu eta erraztu nahi dute, zerbitzu publikoak ahalik eta efizienteenak eta hoberenak izan daitezen. Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da herri-administrazioen arteko lankidetza areagotzea. Eta zehazki, administrazioek informazioa trukatzeko sistemak sortu behar dira, izapideak egiteko herritarrei ziurtagiriak eskatu beharra saihesteko aukera emango duten sistemak.

II.- Herritarrek zerbitzu publikoak baliabide elektronikoen bitartez erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezarri du herritarrek eskubidea dutela herri-administrazioek badituzten datuak eta agiriak ez emateko. Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak ezartzen duenez, datuak eta agiriak ez ekartzeko eskubidea erabiltzea errazagoa izan dadin, gainerako herri-administrazioekin hitzarmenak sinatzea bultzatuko du administrazioak, ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 9. artikuluaren arabera (Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa da lege hori). Hitzarmenetan organo lagatzaileei eskuratu nahi diren datu edo dokumentuekiko eskubide hori baliatzen dela egiaztatzea ahalbidetuko dieten prozedurak ezarriko dira.

III.- Sinatzaileek datu jakin batzuk laga diezazkieten behar izaten dute, beren egitekoak burutzeko eta ezarrita dituzten eskumenak erabiltzeko. Beraz, herri-administrazioen arteko harremanetan elkarri laguntzea nagusi izan behar dela kontuan hartuta eta beraien jardunean efizientziaren printzipioa eta herritarrei zerbitzu eman beharraren printzipioa aplikatuta, alderdiek uste dute beren arteko datu-trukea arautu beharra daukatela. Truke horretn baliabide elektronikoak

EXPONEN:

I.- Que tanto la Administración de la CAE como las Diputaciones Forales tienen entre sus objetivos prioritarios impulsar la modernización, la racionalización y la simplificación en la tramitación administrativa, con la finalidad de ofrecer unos servicios públicos eficientes y de calidad. Para conseguir estos objetivos es indispensable intensificar la cooperación entre Administraciones Públicas, y, en concreto, construir sistemas de intercambio de información entre éstas que eviten la necesidad de solicitar a la ciudadanía certificaciones de datos para realizar trámites ante las Administraciones.

II.- Que la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas. El Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración Electrónica, establece que para facilitar el ejercicio del derecho a no aportar datos y documentos, la Administración promoverá la celebración de convenios con las restantes Administraciones Públicas, según lo establecido en el artículo 9 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos. En estos convenios se establecerán los procedimientos que permitan a los órganos cedentes comprobar el ejercicio del derecho respecto de los datos o documentos cuyo acceso hubiera sido solicitado.

III.- Que las partes firmantes requieren la cesión de determinados datos para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias que tienen encomendadas, por lo que en el marco de la colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre Administraciones Públicas, y en aplicación de los principios de eficiencia y servicio a la ciudadanía que han de regir su actuación, las partes consideran necesario regular las condiciones de dicho intercambio, que se producirá

erabiliko dira, eta herri-administrazioek dauzkaten datuen inguruan herritarrei dagozkien bermeak eta eskubideak errespetatuko dira.

**IV.-** EAEko Administrazioak eta Lehendakaritza Ministerioak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten 2010eko urriaren 18an, administrazio elektronikoko zerbitzuak emateko elkarri, eta horren aplikazio-eremuan sartzen da EAEko Administrazioa SARA sarean sartzea. Sare hori Lehendakaritza Ministerioak eta autonomia-erkidegoek elkarrekin garatutako azpiegitura teknologikoen multzo batek osatzen dute, eta horren bidez administrazio guztiak (nahi dutenak) sarean konekta daitezke eta administrazioen artean aplikazioak elkartrukatzeko sistema erraztu daiteke. Hitzarmenaren II. eranskinean adierazten da EAEko Administrazioak hitz ematen duela Foru Aldundiak SARA sarean sar daitezen erraztu eta sustatuko duela, Foru Aldundiek erabakitako teknologia, tresna eta prozedurak erabiliz.

**V.-** Datuak elkarri emateko erabiliko den sistemari esker, alde batera utzi ahal izango dira paperezko ziurtagiriak eta bestelako egiaztagiriak: aurrerantzean datuak baliabide elektronikoen bidez bidaliko dira, eta behar bezala bermatuko dira trukatzen den informazioaren egiazkotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, baliagarritasuna eta artapena.

**VI.-** Sinatzaileek itundu dute 1998ko abenduaren 22an Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundi bakoitzak datuen trukeaz sinatutako hitzarmenak (EHAA, 1999/01/15) hitzarmen honetan ezarritako sistemaren bidez haietan ezarritako informazioa ematea bermatzen denean, suntsitzea. Hori gertatu arte aurreko hitzarmenek jarraituko dute indarrean. Era berean, sinatzaileek erabaki dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren sozietate publikoek eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek informazioa baliabide elektronikoen bidez trukatzeko 2009ko abenduaren 1ean (EHAA, 2010-02-10) sinatu zuten lankidetza-hitzarmena suntsitzea.

utilizando medios electrónicos, y con salvaguarda de las garantías y los derechos que asisten a la ciudadanía, en relación a sus datos personales en poder de las Administraciones Públicas.

**IV.-** Que la Administración de la CAE y el Ministerio de la Presidencia suscribieron, el 18 de octubre de 2010, un Convenio de Colaboración para la prestación mutua de servicios de Administración Electrónica, cuyo ámbito de aplicación incluye el acceso de la Administración de la CAE a la Red SARA. Esta Red es un conjunto de infraestructuras tecnológicas desarrollado por el Ministerio de la Presidencia y las Comunidades Autónomas que permite conectar a todas las Administraciones que lo deseen y facilitar un sistema de intercambio de aplicaciones. En el Anexo II de dicho Convenio se señala que la Administración de la CAE se compromete a facilitar y promover el acceso de las Diputaciones Forales a la Red SARA con la tecnología, mecanismos y procedimientos que éstas acuerden.

**V.-** Que el sistema de interoperabilidad que se va a utilizar permite sustituir los certificados u otros documentos acreditativos en papel por transmisiones electrónicas de datos, y asegura las condiciones de autenticidad, integridad, confidencialidad, disponibilidad y conservación de la información intercambiada.

**VI.-** Que las partes firmantes acuerdan resolver los Convenios en materia de cesión de datos suscritos entre el Gobierno Vasco y cada una de las Diputaciones Forales, el 22 de diciembre de 1998 (BOPV de 15 de enero de 1999), cuando se garantice el suministro de la información que tiene cobertura en los mismos, mediante el sistema previsto en este Convenio. Hasta que esto no se produzca, continuarán en vigor los Convenios anteriores. Asimismo, las partes firmantes acuerdan resolver el Convenio de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Sociedades Públicas y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el intercambio de información por medios

electrónicos, suscrito el 1 de diciembre de 2009 (BOPV de 10 de febrero de 2010).

Horregatik guztiagatik alderdiek lankidetza hitzarmen hau sinatu dute.

Por todo ello, las partes firmantes suscriben este Convenio de colaboración con arreglo a las siguientes

**KLAUSULAK:**

**CLÁUSULAS**

**LEHENENGOA.– Xedea eta helburua**

Hitzarmen honen xedea da zehaztapenak eta baldintza orokorrak zehaztea, batetik, EAEko Administrazioaren eta Foru Aldundien arteko informazio-trukea eta, batetik, Foru Aldundien artekoa egiteko. Hitzarmen honen xedea da, halaber, Estatuko administrazioen eta Foru Aldundien arteko datu-bitartekotza egitea.

Hitzarmenaren xede nagusia da herri-administrazioen esku dauden datu eta agiriak ez ekartzeko eskubidea erabiltzeko erraztasunak ematea, ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6.2.b artikuluan ezarritako eran, hau da, interesdunak ados daudenean edo legeak hala ezartzen duenean.

Nolanahi ere, hitzarmenak aukera emango dio administrazioari herritarrek aurkeztutako datuak egiaztatzeko, haren baimenik lortu beharrik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11.2 eta 21 artikuluei jarraituz.

**PRIMERA.- Objeto y finalidad**

El presente Convenio tiene por objeto establecer los términos y condiciones generales para el intercambio de información entre la Administración de la CAE y las Diputaciones Forales y de éstas entre sí. Asimismo, es objeto de este Convenio la intermediación de datos entre las Administraciones Estatales y las Diputaciones Forales.

La finalidad principal del Convenio es facilitar el ejercicio del derecho a no aportar los datos y los documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas, en los términos del artículo 6.2.b) de la Ley 11/2007, de 22 de junio, esto es, siempre que se cuente con el consentimiento de las personas interesadas o una Ley así lo determine.

No obstante, este Convenio permitirá que la Administración verifique o compruebe los datos aportados por la ciudadanía, sin necesidad de su consentimiento, en los términos previstos en los artículos 11.2 y 21 de la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal.

**BIGARRENA.- Lankidetzaren eremua**

EAEko Administrazioak eta Foru Aldundiek elkar hartuta lan egingo dute, kasuan kasuko informazioaren arabera lagatzaile edo lagapen-hartzaile gisa, hitzarmenaren I. eranskinean aurreikusitako datuen transmisioan. Era berean, EAEko Administrazioak Estatuko administrazioen eta Foru Aldundien arteko datuen transmisioan bitartekotza-lanak egingo ditu, hitzarmenaren II.

**SEGUNDA.- Ámbito de aplicación**

La Administración de la CAE y las Diputaciones Forales colaborarán como cedente o cesionaria, en función de la información de que se trate, en la transmisión de los datos previstos en el Anexo I al Convenio. Asimismo, la Administración de la CAE intermediará en la transmisión de datos entre las Administraciones Estatales y las Diputaciones Forales, según lo previsto *en el* Anexo II al

eranskinean aurreikusitako moduan.

**HIRUGARRENA.- Informazio-trukearen arduradunak**

**1.-** Administrazio lagatzaile bakoitzak ezarriko ditu eskaintzen dituen elkarreragingarritasun-zerbitzuetara sartzeko protokolo eta baldintzak. Informazioa emateko eskaerak koordinatu, tramitatu eta erantzuteko organo arduraduna honakoa izango da

- Arabako Foru Aldundian: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundian: Administrazioaren Modernizaziorako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundian: Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendari Nagusia.
- EAEko Administrazioan: Administrazio Elektronikoaren eskumenak dituen Zuzendaritza.

**2.-** Lagatako datuak hartzen dituen administrazio bakoitzak ezarritako datuetara sartzeko baldintzak beteko ditu eta lagatzaileak baimenduriko administrazio-tramite eta prozeduren esparruan emandako informaziorako pertsonen eta organoen sarbidea kudeatuko du. Emandako informaziora sartzeko eskaerak koordinatu, tramitatu eta erantzuteko organo arduraduna honakoa izango da:

- Arabako Foru Aldundian: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundian: Administrazioaren Modernizaziorako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundian: Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendari Nagusia.
- EAEko Administrazioan: Administrazio Elektronikoaren eskumenak dituen Zuzendaritza.

Convenio.

**TERCERA.- Responsables del intercambio de información**

**1.-** Cada Administración cedente establecerá los protocolos y condiciones de acceso a los servicios de interoperabilidad que se ofrezcan. El órgano responsable de coordinar, tramitar y atender las solicitudes de suministro de información es:

- En la Diputación Foral de Álava: la Dirección de Servicios Generales.
- En la Diputación Foral de Bizkaia: la Dirección General de Modernización de la Administración.
- En la Diputación Foral de Gipuzkoa: la Dirección General de Modernización, Servicios y Sistemas para la Sociedad de la información.
- En la Administración de la CAE: la Dirección competente en materia de Administración Electrónica.

**2.-** Cada Administración cesionaria de datos cumplirá las condiciones de acceso a los datos establecidos y gestionará el acceso de las personas y órganos a la información suministrada por el cedente en el ámbito de los trámites y procedimientos administrativos autorizados. El órgano responsable de coordinar, tramitar y atender las solicitudes para acceder a la información suministrada es:

- En la Diputación Foral de Álava: la Dirección de Servicios Generales.
- En la Diputación Foral de Bizkaia: la Dirección General de Modernización de la Administración.
- En la Diputación Foral de Gipuzkoa: la Dirección General de Modernización, Servicios y Sistemas para la Sociedad de la información.
- En la Administración de la CAE: la Dirección competente en materia de Administración Electrónica.

**LAUGARRENA.- Baldintza teknikoak eta funtzionalak**

Informazioa Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalean eta hura garatzeko arauetan, eta bereziki datuen bitartekotzako protokoloen elkarreragingarritasunerako arau teknikoan (BOE, 2012/07/26), ezarritako baldintza tekniko eta funtzionalen arabera emango da.

**CUARTA.- Condiciones técnicas y funcionales**

El suministro de información se realizará según las condiciones técnicas y funcionales establecidas en el Esquema Nacional de Interoperabilidad y sus normas de desarrollo, y, en especial, en la Norma Técnica de Interoperabilidad de protocolos de intermediación de datos (BOE de 26 de julio de 2012).

**BOSGARRENA.- Jarraipen Batzorde Teknikoa**

Jarraipen Batzorde Teknikoa sortuko da hitzarmenean eta eranskinetan itundutakoa kudeatzeko, jarraipena egiteko eta betetzen denentz kontrolatzeko. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek bina kide izendatuko dituzte. Batzordea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluan ezarritako arauei lotuko zaie bere jardunean.

Jarraipen Batzorde Teknikoak ohiko bilkura bat izango du urtean. Horrez gainera aparteko bilkura egingo du alderdi batek eskatzen duen bakoitzean.

Jarraipen Batzorde Teknikoak hitzarmenaren interpretazioaren eta burutzapenaren inguruan sortzen diren auziak ebatziko ditu, eta bidezkotzat jotzen diren hobekuntzak formalizatzea proposatuko du. Era berean, bere egitekoak garatzeko egoki iruditzen zaizkion lantaldeak antolatuko ditu.

Gainera, Jarraipen Batzorde Teknikoak hitzarmenaren funtsa ukitzen ez duten aldaketa teknikoak ezar ditzake.

**QUINTA.- Comisión Técnica de Seguimiento**

Para la gestión, seguimiento y control de lo acordado en el presente Convenio y en sus Anexos, se constituirá una Comisión Técnica de Seguimiento que estará compuesta por dos miembros designados por el Gobierno Vasco, y dos miembros designados por cada Diputación Foral, ajustándose el funcionamiento de la citada Comisión a las normas contenidas en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La Comisión Técnica de Seguimiento se reunirá, de manera ordinaria, una vez al año y, de forma extraordinaria, a petición de cualquiera de sus miembros.

Corresponde a la Comisión Técnica de Seguimiento resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que se deriven del presente Convenio, así como proponer la formalización de las mejoras del mismo que considere oportunas. Asimismo, organizará los grupos de trabajo que estime oportunos para el desarrollo de sus funciones.

Las modificaciones de tipo técnico que no constituyan modificación sustancial del Convenio podrán ser acordadas por la propia Comisión Técnica de Seguimiento.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO | Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava | BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia | Gipuzkoako Foru Aldundia

**SEIGARRENA.- Araubide ekonomikoa**

Lankidetza-hitzarmen honek ez du sortzen sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik; baina horrek ez du esan nahi, alderdiek, hitzarmen hau sinatuta beren gain hartu dituzten betebeharrak betetzeko eta betiere materialki posible bada, inbertsioak egin beharko ez dituztenik.

**SEXTA.- Régimen económico**

Este Convenio de colaboración no comporta contraprestaciones económicas entre las partes firmantes, sin perjuicio de que cada una de ellas deba realizar las inversiones necesarias en sus instalaciones para cumplir con las obligaciones que ha adquirido mediante la firma del presente Convenio, siempre que materialmente sea posible.

**ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik aurrera sortuko ditu ondoreak, eta hiru urtean egongo da indarrean. Indarraldia amaitutakoan hitzarmena urtebeterako luzatuko da berez, eta hala gertatuko da urtero, baldin eta, mugaeguna baino gutxienez hiru hilabete lehenago, alderdietako batek hitzarmena suntsitzea nahi duela adierazten ez badu.

**SÉPTIMA.- Vigencia del Convenio**

El presente Convenio producirá efectos a partir del día de su firma y tendrá una duración de tres años. El Convenio se prorrogará automáticamente por períodos anuales, salvo denuncia por alguna de las partes con una antelación mínima de tres meses antes de la fecha de vencimiento.

**ZORTZIGARRENA.- Hitzarmenaren berrikuspena**

Alderdiek noiznahi proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea bidezkotzat jotzen diren aldaketak egiteko. Hitzarmenaren klausulak berrikusten badira, aldaketak hitzarmenean bertan sartuko dira, eranskin gisa, eta alderdiek sinatu behar egin beharko dituzte.

**OCTAVA.- Revisión del Convenio**

Cualquiera de las partes podrá proponer la revisión de este Convenio en cualquier momento para introducir las modificaciones que se estimen pertinentes. De producirse la revisión del clausulado del Convenio, los correspondientes cambios habrán de incorporarse al mismo mediante adenda que será suscrita por las partes.

**BEDERATZIGARRENA.- Araubide juridikoa**

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik at geratzen da, baina horrek ez du ezertan galarazten, sortzen diren zalantzak eta hutsuneak ebazteko, lege horretako printzipioak aplikatzea.

**NOVENA.- Régimen Jurídico**

El presente Convenio está excluido del ámbito de aplicación del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, sin perjuicio de que se apliquen los principios de esta Ley para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse.

**HAMARGARRENA.- Gatazkak konpontzea**

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek konpromisoa hartu dute hitzarmena betetzean sortzen diren gorabeherak elkar hartuta konpontzeko.

**DÉCIMA.- Resolución de conflictos**

Mediante la firma del presente Convenio, las partes se comprometen a resolver de mutuo acuerdo las incidencias que puedan surgir en su cumplimiento.

Hitzarmenaren garapenean eta burutzapenean alderdien arteko auziren bat sortzen bada eta bosgarren klausulan ezarritako Jarraipen Batzorde Teknikoak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del presente Convenio y no puedan ser resueltas por la Comisión Técnica prevista en la cláusula quinta, se someterán a la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**HAMAIKAGARRENA.- Komunikazioa**

Alderdiek hitzarmenaren sinatzaile guztiak aipatuko dituzte haren berri emateko bakarka zein batera egiten dituzten egintza guztietan.

Hitzarmen hau Estatuko Administrazio Orokorrari jakinaraziko zaio.

**UNDÉCIMA.- Comunicación**

Las partes se comprometen a citar al conjunto de los firmantes del Convenio en cualquier acto de comunicación que sobre la materia del mismo se realice unilateral o conjuntamente.

El presente Convenio será notificado a la Administración General del Estado.

**HAMABIGARRENA.- Araubide iragankorra**

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundi bakoitzak datuak lagatzeko 1998ko abenduaren 22an sinatutako hitzarmenak (EHAA, 1999/01/15), hitzarmen hau sinatzen denean indarrean daudenak, indarrean jarraituko dute, harik eta hitzarmen honetan aurreikusitako transmisio-sistema berria efektiboa izan arte, eta ezin izango dira ordeztu, haietan aurreikusitako informazioa emateko modua bermatu ezean.

**DUODÉCIMA.- Régimen transitorio**

Los Convenios en materia de cesión de datos suscritos entre el Gobierno Vasco y cada una de las Diputaciones Forales, el 22 de diciembre de 1998 (BOPV de 15 de enero de 1999), vigentes a la firma de este Convenio, se mantendrán en vigor, hasta que sea efectivo el nuevo sistema de transmisión previsto en este Convenio, y no podrán ser sustituidos salvo que se garantice el suministro de la información prevista en aquéllos.

**HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmena suntsitzea**

Sinatzaileek erabaki dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren sozietate publikoek eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek informazioa baliabide elektronikoen bidez trukatzeko 2009ko abenduaren 1ean (EHAA, 2010-02-10) sinatu zuten lankidetza-hitzarmena suntsitzea.

**DECIMOTERCERA.- Resolución de Convenio**

Las partes firmantes acuerdan resolver el Convenio de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Sociedades Públicas y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el intercambio de información por medios electrónicos, suscrito el 1 de diciembre de 2009 (BOPV de 10 de febrero de 2010).

Aurrean ezarritako guztia frogatzeko, alderdiek hitzarmenaren lau ale sinatu dituzte ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de cuanto antecede, las partes suscriben este Convenio en cuatro ejemplares y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**Josu Iñaki Ercoreca Gervasio**
Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako Sailburua
Consejero de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco

**Cristina González Calvar**
Arabako Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Foru Diputatua
Diputada Foral de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de Administración Foral de Álava

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
Bizkaiko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatua
La Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de Bizkaia

**Imanol Lasa Zeberio**
Gipuzkoako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatua
Diputado Foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad de Gipuzkoa

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ARTEKO ETA FORU ALDUNDIEN BERAIEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA INFORMAZIOA BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BITARTEZ TRUKATZEKO**

## ERANTSITAKO AGIRIAK

**I. ERANSKINA.** EAE-KO ADMINISTRAZIOAREN ETA FORU ALDUNDIEN ARTEKO ETA FORU ALDUNDIEN BERAIEN ARTEKO DATU TRANSMISIOA.

**II. ERANSKINA.** ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ESTATUKO GAINERAKO ADMINISTRAZIOEN ETA FORU ALDUNDIEN ARTEKO DATU BITARTEKOTZA.

# I. ERANSKINA

## EAE-KO ADMINISTRAZIOAREN ETA FORU ALDUNDIEN ARTEKO ETA FORU ALDUNDIEN BERAIEN ARTEKO DATU TRANSMISIOA

**1.- Xedea.**

Eranskin honen xedea da EAEko Administrazioak eta Foru Aldundiek eta Foru Aldundiek beraien artean datuak trukatzeko baldintzak arautzea. Alderdi guztiek informazio-lagatzaile nahiz lagapen-hartzaile izan daitezke.

Informazioa beren egitekoen ondorioz bildu dute lagatzaileek, administrazio baitira, eta lagapen-hartzaileek, ezarrita dauzkaten eginkizunak burutzeko behar dute.

Nolanahi ere, indarrean dagoen arau-esparrua eta, bereziki, datu pertsonalen babesari buruzkoa errespetatuz eman eta eskuratuko da informazioa. Alde horretatik, datu pertsonalak zein esparru eta helburu zehatz, esplizitu eta legitimotarako lortu diren kontuan izan beharko da, eta trukatzen direnean, horren arabera, egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak izan behar dira, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 4. artikuluak ezarri legez.

**2.- Informazioa ematearen helburua.**

Helburua da EAEko Administrazio Publikoaren eta Foru Aldundien menpeko organo eta erakundeek kudeatutako administrazio-prozeduretan interesa duten pertsonen datuak egiaztatu eta kontsultatzea, baldin eta datu horiek prozedura horietako eskakizunetan sartzen badira.

**3.- Informazioaren edukia.**

Datu-lagatzaile bakoitzak elkarreragingarritasun-zerbitzuen katalogo bat eduki eta argitaratuko du, lagapen-hartzaile diren erakundeen eskura, kontsultatu dezaten. Zerbitzuen katalogoan trukerako datuen xehetasunak jasoko dira, zerbitzuetara sartzeko baldintza teknikoak, tramitaziorako eskakizunak eta lagapen-hartzaileak jakin behar duen beste zernahi informazio.

**4.- Informazioaren transmisiorako baldintzak.**

Informazioa Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalean eta hura garatzeko arauetan, eta datuen bitartekotzako protokoloen elkarreragingarritasunerako arau teknikoan ezarritako baldintza tekniko eta funtzionalen arabera transmitituko da.

**5.- Datu pertsonalen babesa.**

Alderdiek hitz ematen dute zorrotz beteko dituztela Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, lege hori garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritako xedapenak eta haiek garatzeko estatuko nahiz erkidegoko araudian ezarritakoak.

Horren ondorioz, datuak kontsultatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da interesdunaren adostasuna lortzea, lege maila duen arau batek kontsulta egitea baimentzen ez badu behintzat. Baimena prozedura abiarazteko eskaeran agertu behar da, edo ondoko zeinahi komunikaziotan, sisteman kontsulta egin baino lehen eginez gero. Baimena modu sinesgarrian agerrarazten ez bada, ezin egin izango da kontsulta. Administrazio-prozedurak hasteko eskatzeko inprimaki edo formulario elektronikoak baimena jasotzeko prestatu behar dira.

Ematen diren datu pertsonalen erantzuleak kasuan kasuko datuak babesteko agentzian behar bezala deklaratuta izan beharko ditu datuen fitxategiak, informazioa eman baino lehenagotik. Tratamenduaren arduradunik bada, datuen erantzuleak esango dio, hitzarmen honetan jasotako zerbitzuak emate aldera, zer jarraibide bete behar dituen datuetara sartzen uzteko.

**6.- Informazioaren eskuragarritasuna.**

Elkarreragingarritasun-zerbitzua astean 7 egun eta egunean 24 ordu egongo da eskuragarri.

Administrazio lagatzaile nahiz lagapen-hartzaile guztiek laguntza eskainiko diete zerbitzuen erabiltzaile guztiei, eta horretarako arreta-zentro bat izango dute, elkarreragingarritasun-sistemaren gaineko gorabehera guztiak bideratuko dituena.

**7.- Informazioa beste sistema batzuen bidez bidaltzea ez eskatzeko konpromisoa eta herritarrei zuzenean aurkez dezaten ez eskatzekoa.**

1. Lagapen-hartzaileak ez dio eskatuko lagatzaileari hitzarmenean, eranskinetan edo alderdiek ituntzen dituzten aldaketetan ezarritakoak ez diren beste bitarteko batzuk erabiliz bidaltzeko informazioa.

2. Lagapen-hartzaileak ez die eskatuko pertsona interesdunei lagatzaileak emandako ziurtagiriak edo bestelako agiriak aurkezteko. Aitzitik, lagatzaileari eskatuko dio informazioa hitzarmen honetan ezarritako sistemaren bidez transmititzeko; hala ere, gerta liteke arrazoi teknikoengatik edo antolamenduagatik lagatzaileak informazioa ezin bidali izatea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 6a

**Josu Iñaki Ercoreca Gervasio**
Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburua

**Cristina González Calvar**
Arabako Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Foru Diputatua

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
Bizkaiko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatua

**Imanol Lasa Zeberio**
Gipuzkoako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatua

## II. ERANSKINA

### ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ESTATUKO GAINERAKO ADMINISTRAZIOEN ETA ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ARTEKO DATU BITARTEKOTZA

**1.- Xedea.**

Eranskin honen xedea da Estatuko Administrazio Orokorraren eta estatuko gainerako administrazioen eta Foru Aldundien arteko datu-bitartekotza arautzea. Bitartekotza hau Lehendakaritza Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak administrazio elektronikoko zerbitzuak emateko sinatu zuten lankidetza-hitzarmenari esker egin daiteke.

Herritarrek, lehendik administrazio publikoen esku dauden datuak eta dokumentuak berriro aurkeztu beharrik ez izateko eskubidea erabiltzea errazte aldera, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak datu horien bitartekotzarako plataforma bat garatu du.

Plataforma horri esker, interesa duten administrazio publikoek automatikoki eta baliabide elektronikoen bitartez kontsultatu ahal izango dituzte herritarren datuak, dokumentu horiek aurkeztu beharrik ez izateko edo datu horiek egiaztatzeko. Horretarako, alabaina, lege batek gaitu behar ditu edo herritarrek baimena eman behar die. Lehendakaritza Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak elkarri administrazio elektronikoaren zerbitzuak emateko sinatutako lankidetza-hitzarmenaren ondorioz, administrazio elektronikoaren esparruan garatutako sistemen elkarreragingarritasunaz baliatu ahal izango dira Foru Aldundiak, eta Eusko Jaurlaritzaren bidez, hitzarmen honen eranskinetan datozen edo aurrerantzean jasotzen diren zerbitzuek eskaintzen dituzten funtzionalitateetara sartzeko aukera izango dute. Eusko Jaurlaritzak bitartekotza-lana egingo du, bai estatuko administrazioek eskura jarritako datuak gainerako euskal administrazioei lagatzeko, bai eta, alderantziz, horiek eskaintzen dituzten datuak Estatuko Administrazio Orokorrari eta estatuko gainerako administrazioei lagatzeko.

Kontuan izanik administrazioen arteko lankidetza behar-beharrezkoa dela herritarrei zerbitzu integratuak eskaini ahal izateko, eta kontuan izanik, halaber, 11/2007 Legearen 4.e artikuluan jasotako printzipioa, eranskin honen xedea da administrazioen arteko datuen bitartekotza-zerbitzua erabiltzeko baldintzak zehaztea, administrazio-egitekoak betetzeko beharrezkoak diren datuak kontsultatu ahal izateko, legeak exijitutako segurtasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz.

**2.- Irismena.**

Eranskin hau aplikatuz gero, Foru Aldundien menpeko organoen edo erakundeen aplikazio informatikoek datuen bitartekotza zerbitzuak erabili ahal izango dituzte.

Datuak trukatzeko oinarrizko plataforma baterako konexioa izango du zerbitzuak, oinarrizko zerbitzuekin eta segurtasun politika bateratuarekin, Euskalsarea sarera konektatuta dauden administrazio publikoen aplikazioen artean informazioa modu seguruan trukatu dadin. Dena den, agiri honetan ezarritako ezaugarriak eta baldintzak beteko dira.

Ogasun eta Herri Administrazioko Ministerioaren bitartekotza-plataformak web-atari bat izango du eskainitako elkarreragingarritasun-zerbitzu guztiei buruzko dokumentazioarekin; besteak beste, honako

hauek izango ditu: eskura dauden elkarreragingarritasun-zerbitzuen katalogoa, zerbitzuetara sartzeko informazio teknikoa eta sarbidea baimentzeko formularioak.

**3.- Zerbitzua ematen duenaren betebeharrak.**

EAEko Administrazioak, zerbitzu-emaile gisa, honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

(i) Foru Aldundien eskura jartzea administrazio publikoen arteko datuen bitartekotzarako zerbitzua.

(ii) Zerbitzuak integratzeko proba-inguruneak edukitzea, azken erabiltzaileen eskura jarri baino lehen behar bezala dabiltzala bermatze aldera.

(iii) Foru Aldundietako integrazio eta garapen taldeek aplikazioak haien zerbitzuetan integratzeko behar duten laguntza eskainiko dioten bitartekoak prestatzea.

(iv) Zerbitzuen erabileraren ondoriozko kontsultei eta gorabeherei arreta emateko eta horiek konpontzeko behar diren baliabideak edukitzea.

(v) Egindako eragiketak ikuskatzeko tresnak ematea, transakzioak ezesten ez direla ziurtatze aldera.

(vi) Eskaintzen diren informazioa eta bitartekotza zerbitzuak behar bezala babesteko behar diren segurtasun-neurri guztiak hartzea.

(vii) Bitartekotza zerbitzuak emateari lotuta dauden datu guztien eskalagarritasuna, sendotasuna, erabilgarritasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.

**4.- Zerbitzuen onuradunen betebeharrak.**

Foru Aldundiek, datuen bitartekotza-zerbitzuaren onuradun gisa, honako konpromiso hauek hartu dituzte:

(i) Bere bulego edo instalazioetatik EUSKALSAREA sarearen bitartez bitartekotza-zerbitzura sartzeko behar den konektibitatea eta hedapena prestatzea.

(ii) Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalean eta hura garatzeko arauetan, eta bereziki, datuen bitartekotzako protokoloen elkarreragingarritasunerako arau teknikoan, ezarri diren segurtasun neurriak eta egiazkotasun, konfidentzialtasun eta osotasun eskakizunak betetzea.

(iii) Zerbitzuen errendimendu- edo monitorizazio-probak egin daitezen hitzartzea Eusko Jaurlaritzarekin, datuak egiaztatzeko sistemen gainerako erabiltzaileek zerbitzuak erabil ditzaten arriskuan ez jartzeko.

(iv) Datuak berak jaso baditu, herritarren onarpena eskatzea, datuak eskatzea gaitzen duen legerik ez badago.

(v) Zerbitzua modu egokian erabiltzea, baimenduta dituen kasuetan erabiliz.

(vi) Datuen bitartekotza-zerbitzurako sarbidea eta horren erabilera erraztu, sustatu eta antolatzea bere eskumen-eremuko erakundeei eta administrazioei; eta zerbitzuaren kalitatea, dagokionean, bermatzea.

(vii) Zerbitzua erabiltzen duten aplikazioak eta sistemak administratzeko prozesuak bateratzeko ezarritako prozeduren jarraipena egitea.

**5.- Informazioaren transmisiorako baldintzak.**

Eranskin honen xede diren zerbitzuek Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalean jasotzen diren baldintza teknikoak eta funtzionalak bete beharko dituzte.

**6.- Erantzukizunaren mugak.**

Eusko Jaurlaritzak edo horren hornitzaileek ez dute zerbitzua gaizki erabiltzeagatik edo zerbitzurik ez egoteagatik zeharka sor daitezkeen kalteak bere gain hartzeko betebeharrik.

**7.- Erreferentziak.**

Eusko Jaurlaritzak onuradunen edozein zerrendatan edo argitaratutako edozein prentsa-aldizkaritan atera dezake, aldez aurretik baimena eskatu gabe, zerbitzuak erabiltzen dituzten erakundeen zerrenda.

Foru Aldundiek ez dute Eusko Jaurlaritzaren aurretiazko baimenik behar izango zerbitzu horien erabilera aipatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 6a

**Josu Iñaki Ercoreca Gervasio**
Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburua

**Cristina González Calvar**
Arabako Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Foru Diputatua

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
Bizkaiko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatua

**Imanol Lasa Zeberio**
Gipuzkoako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatua

# CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA, Y DE ÉSTAS ENTRE SÍ, PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN POR MEDIOS ELECTRÓNICOS

## DOCUMENTOS ANEXOS

**ANEXO I.** TRANSMISIÓN DE DATOS ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA CAE Y LAS DIPUTACIONES FORALES, Y DE ÉSTAS ENTRE SÍ.

**ANEXO II.** INTERMEDIACIÓN DE DATOS ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO Y EL RESTO DE LAS ADMINISTRACIONES ESTATALES Y LAS DIPUTACIONES FORALES.

## ANEXO I

## TRANSMISIÓN DE DATOS ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA CAE Y LAS DIPUTACIONES FORALES, Y DE ÉSTAS ENTRE SÍ

**1.- Objeto.**

El presente Anexo tiene por objeto regular las condiciones para la transmisión de datos entre la Administración de la CAE y las Diputaciones Forales, y de éstas entre sí. Todas las partes pueden actuar tanto como cedentes de información como cesionarias de ésta.

Esta información se obtiene por las cedentes en el ejercicio de sus funciones, en cuanto Administraciones y es requerida por la cesionaria para el desempeño de las funciones que tiene encomendadas.

En todo caso, dicho acceso o suministro se producirá siempre con estricto respeto al marco normativo vigente y, en particular, al referido a la protección de datos de carácter personal. En este sentido, los datos de carácter personal que se intercambien serán adecuados, pertinentes y no excesivos en relación con el ámbito y las finalidades determinadas, explícitas y legítimas para las que se hayan obtenido, tal y como dispone el artículo 4 de la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal.

**2.- Finalidad del suministro de la información.**

Verificar y consultar los datos de las personas interesadas en los procedimientos administrativos gestionados por los órganos y entidades dependientes de la Administración Pública de la CAE y de las Diputaciones Forales, siempre que los citados procedimientos tengan establecidos esos datos como requisito.

**3.- Contenido de la información.**

Cada cedente de datos mantendrá y publicará un catálogo de servicios de interoperabilidad a disposición de las organizaciones cesionarias para su consulta. En ese catálogo de servicios se recogerá el detalle de los datos que se intercambiarán, las condiciones técnicas de acceso a los servicios, los requisitos para su tramitación y cualquier otra información que deba conocer la cesionaria.

**4.- Condiciones de transmisión de la información.**

La transmisión de la información se realizará según las condiciones técnicas y funcionales establecidas en el Esquema Nacional de Interoperabilidad y en sus normas de desarrollo y, en especial, según lo establecido en la Norma Técnica de Interoperabilidad de protocolos de intermediación de datos.

**5.- Protección de datos de carácter personal.**

Las partes se comprometen a cumplir con las disposiciones de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, que regula la Protección de Datos de Carácter Personal, del Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, que regula la Protección de Datos de Carácter Personal y de la Ley del Parlamento Vasco 2/2004, de 25 de febrero, que regula los Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, así como de su normativa estatal o autonómica de desarrollo.

Sobre la base de lo anterior, para realizar la consulta de los datos, será preciso el consentimiento de la persona interesada cuyos datos se vayan a consultar, salvo que una norma con rango de Ley autorice la consulta. Dicho consentimiento deberá constar en la solicitud de iniciación del procedimiento, o en cualquier otra comunicación posterior, siempre y cuando dicha comunicación sea previa a la consulta en el sistema, no pudiendo realizarse consulta alguna en caso de no contar con el consentimiento de forma fehaciente. Los impresos o formularios electrónicos de solicitudes de iniciación de procedimientos administrativos deberán adecuarse para recoger dicho consentimiento.

El responsable de los datos personales que se suministran debe tener declarados convenientemente estos ficheros ante la Agencia de Protección de Datos correspondiente, con carácter previo a la cesión de la información. En el caso de que exista un encargado del tratamiento, el responsable le dará las instrucciones oportunas para que dé acceso a los datos, a fin de que se presten los servicios objeto de este Convenio.

**6.- Disponibilidad de la información.**

El acceso a los servicios de interoperabilidad estará disponible los 7 días de la semana y las 24 horas del día.

Tanto las Administraciones cedentes como las cesionarias darán soporte a las personas usuarias de los servicios, manteniendo para ello un centro de atención que canalice todas las incidencias relativas al sistema de interoperabilidad.

**7.- Compromiso de no exigir la remisión de la información por otros sistemas, ni su aportación individual por la ciudadanía.**

1. La Administración cesionaria se abstendrá de exigir a la cedente la remisión de la información por medio de otros cauces que no sean los establecidos en este Convenio, sus Anexos o las modificaciones que, en su caso, se acuerden entre las partes.

2. La Administración cesionaria no exigirá a las personas interesadas que aporten certificaciones o documentos expedidos por la cedente, sino que solicitará a la cedente la transmisión de la información por medio del sistema establecido en este Convenio, salvo que por razones técnicas u organizativas sea imposible obtener la información de la cedente.

Vitoria Gasteiz, 6 de noviembre de 2015

**Josu Iñaki Ercoreca Gervasio**
Consejero de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco

**Cristina González Calvar**
Diputada Foral de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de Administración Foral de Álava

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
La Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de Bizkaia

**Imanol Lasa Zeberio**
Diputado Foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO — Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava — BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia — Gipuzkoako Foru Aldundia

**ANEXO II**

## INTERMEDIACIÓN DE DATOS ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO Y EL RESTO DE LAS ADMINISTRACIONES ESTATALES Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA

### 1.- Objeto.

El objeto del presente Anexo es regular la intermediación de datos entre la Administración General del Estado y el resto de las Administraciones Estatales y las Diputaciones Forales. Esta intermediación es posible gracias al Convenio de Colaboración suscrito entre el Ministerio de la Presidencia y el Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para la prestación de servicios de Administración Electrónica.

Con el objeto de facilitar la efectividad del derecho de la ciudadanía a no aportar datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas, el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas ha desarrollado una plataforma de intermediación de dichos datos.

Por medio de esta plataforma las Administraciones Públicas interesadas podrán consultar automáticamente y por medios electrónicos los datos de la ciudadanía, bien sea para eliminar la obligación de aportar los citados documentos, o bien para poder realizar comprobaciones de dichos datos siempre que una ley les habilite para ello o el ciudadano o ciudadana dé su consentimiento. En virtud del Convenio de Colaboración suscrito entre el Ministerio de la Presidencia y el Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para la prestación de servicios de Administración Electrónica, las Diputaciones Forales pueden beneficiarse de la interoperabilidad de los sistemas desarrollados en el ámbito de la Administración Electrónica y pueden acceder, a través del Gobierno Vasco, a las funcionalidades proporcionadas por los servicios relacionados en los Anexos de dicho Convenio, o que se incorporen en el futuro. El Gobierno Vasco realizará la intermediación de los datos disponibles tanto en las Administraciones Estatales para ser cedidos al resto de las Administraciones Vascas, como de los datos disponibles en estas últimas para ser cedidos a la Administración General del Estado y el resto de las Administraciones Estatales.

Teniendo en cuenta la necesaria cooperación entre las distintas Administraciones para proporcionar a la ciudadanía servicios integrados y el principio recogido en el artículo 4.e de la Ley 11/2007, el objeto de este Anexo es determinar las condiciones de utilización del servicio de intermediación de datos entre Administraciones, para realizar las consultas de datos que sean necesarias en el cumplimiento de las funciones administrativas, cumpliendo las garantías de seguridad, integridad y confidencialidad exigidas por la ley.

### 2.- Alcance.

La aplicación de este Anexo habilita a cualquier aplicación informática de los órganos o entidades dependientes de las Diputaciones Forales a utilizar el servicio de intermediación de datos.

El servicio abarca la conexión a una plataforma básica de intercambio de datos, con unos servicios básicos y una política de seguridad común para facilitar el intercambio seguro de información entre las aplicaciones de las Administraciones Públicas conectadas a la red Euskalsarea, según las características y condiciones que se establecen en este documento.

La plataforma de intermediación del Ministerio de Hacienda y Administración Pública mantendrá un portal web informativo con toda la documentación relativa a los servicios de interoperabilidad ofrecidos, incluyendo el catálogo de servicios de interoperabilidad disponibles, la información técnica de acceso a los servicios y los formularios de autorización de acceso a los mismos.

**3.- Obligaciones del prestador del servicio.**

La Administración de la CAE, como prestadora del servicio, asume las siguientes obligaciones:

(i) Poner a disposición de la Diputaciones Forales, el servicio de intermediación de datos entre Administraciones Públicas.

(ii) Disponer de entornos de prueba para la integración de los servicios con objeto de garantizar la correcta operación de éstos con carácter previo a su puesta a disposición de las usuarias finales.

(iii) Habilitar los mecanismos para ofrecer el soporte necesario a los equipos de integración y desarrollo de la Diputaciones Forales para la integración de sus aplicaciones con los servicios.

(iv) Disponer de los recursos necesarios para atender y resolver las consultas e incidencias derivadas del uso de los servicios.

(v) Proporcionar los elementos de auditabilidad de las operaciones realizadas que permitan certificar el no repudio de las transacciones.

(vi) Adoptar todas las medidas de seguridad necesarias para proteger debidamente la información y los servicios de intermediación ofrecidos.

(vii) Garantizar la escalabilidad, robustez, disponibilidad, integridad y confidencialidad de todos los datos relacionados con la prestación de los servicios de intermediación.

**4.- Obligaciones del beneficiario de los servicios.**

Las Diputaciones Forales, como beneficiarias del servicio de intermediación de datos, se comprometen a:

(i) Realizar las labores de conectividad y despliegue pertinentes para poder acceder desde sus propias dependencias o instalaciones al servicio de intermediación de datos a través de EUSKALSAREA.

(ii) Cumplir con las medidas de seguridad y requisitos de autenticidad, confidencialidad e integridad establecidos en el Esquema Nacional de Interoperabilidad y sus normas de desarrollo y, en especial, en la Norma Técnica de Interoperabilidad de protocolos de intermediación de datos.

(iii) Concertar con el Gobierno Vasco la realización de pruebas de rendimiento o monitorización de los servicios con el objeto de no comprometer la disponibilidad hacia otros de los servicios al resto de usuarios de estos sistemas de verificación de datos.

(iv) Recabar, cuando sea receptor de los datos, el consentimiento de los ciudadanos y ciudadanas, si no existe una Ley que le habilita a solicitarlos.

(v) Hacer un uso correcto del servicio, utilizándolo para aquellos casos para los que está autorizado.

(vi) Facilitar, promover y habilitar el acceso y uso del servicio de intermediación de datos, a los organismos y entidades de su ámbito competencial así como garantizar la calidad del servicio en la parte que le corresponda.

(vii) Seguir los procedimientos establecidos para armonizar los procesos de administración de aplicaciones y sistemas usuarios del Servicio.

**5.- Condiciones de transmisión de la información.**

Los servicios objeto del presente Anexo estarán sujetos a las condiciones técnicas y funcionales recogidas en el Esquema Nacional de Interoperabilidad y sus normas de desarrollo.

**6.- Limitación de responsabilidad.**

En ningún caso, el Gobierno Vasco o sus proveedores están obligados a asumir cualquier daño y perjuicio indirecto que provengan del mal empleo o la no disponibilidad del servicio.

**7.- Referencias.**

El Gobierno Vasco podrá hacer públicas en cualquier lista de referencia de beneficiarios o en cualquier boletín de prensa publicado, y sin autorización previa, la relación de organismos usuarios de los servicios.

Las Diputaciones Forales podrán referenciar la utilización de dichos servicios sin autorización previa por parte del Gobierno Vasco.

Vitoria Gasteiz, 6 de noviembre de 2015

**Josu Iñaki Ercoreca Gervasio**
Consejero de Administración Pública y Justicia
del Gobierno Vasco

**Cristina González Calvar**
Diputada Foral de Fomento del Empleo, Comercio y
Turismo y de Administración Foral de Álava

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
La Diputada Foral de Administración Pública y
Relaciones Institucionales de Bizkaia

**Imanol Lasa Zeberio**
Diputado Foral del Departamento de Gobernanza y
Comunicación con la Sociedad de Gipuzkoa